



LEHENGO ERRENERIAR OSPETSUAK

AMASATARRAK

R. Bozas-Urrutia
(Lukainka-nekua)

Izan bai ote da ospetsurik Errenerian? Bai segurik, lehen eta orain, gutartean inork uste duen baino ugariago izan ere, bakoitzak bere lanbide bereziari ta sorterriari sona ta ohorea emandako ospetsuak.

Beste herrietakoak baino aundiagoak ote? Puntu hontan ez daude denak ados. Esteban Los Santos jaunaren ustean, adibidez, ez dira izan ez aundiago ez ttipiago; eta ez dator bat nere aita zenak «Andanzas y mudanzas de mi pueblo» bere liburutxoan haien aldera erakutsi zuen ardurarekin. Nik berriz, naiago dut auzi irristakor hau ez astindu, inoren herrikoitasuna asalda ez dadin.

Gudulari azkarrak, itsasgizon atrebituak, kosmolari erneak (bat bai, gutxienez), eliz-gizon adimendutsuak, idazle trebeak, bertsolari buru argiak, bai eta... (zertako ez aipa, guzietan famatuena izan direlarik?) pilotari aparte-koak ere.

Bada beraz, non aukera egin. Nor aukeratu ordea?

Gudulariak... haien meritu aundiak eta ekintza paregabeak inola ere ukatu gabe, es zaizkit biziro gogozko, ez ditut oso begiko (ez dezatela nere itz hauek inor gaitzitu, arren!). Beude hor bada, oraingoz beintzat.

Itsas gizonak maiteago ba ditut ere—itsasoa maitagarri zaidalako edo—, guduez kutsaturik ikusten ditut geinean, gudulariekin txerto egiñik. Gel bitez hoiek ere, beraz, txanda zai.

Elizgizonak? Sortu du hiriak makina bat apez eta fraile buru oncko, bihotz zabaleko eta hiriaren maitatzaile gartsu. Haien goresmenak ordea, nork obeto egin, beraien erlijio-anaiaren batek baino? Nere lumaz gaineko arazoa da hori.

Idazleez ba dut zer esanik, baina ez dut haietarik batto ere hemen izendatuko; ez noski haintzat artzekoak ez dirclako, beren jaiot-izkuntzari inolako mesederik ez obekuntzarik ekarri ez diotelako baizik (lehengo idazleez ari naiz orain, kasu, ez oraingoez! Baina gaurko errenteriar euskal idazleek badute, Jainkoari esker, nork goresmenak egina, hirian eta kanpoan!).

Bertsolariak ere zoriekoak izan dira alde hortatik, ez baita haieri buruz, luzez eta funtsez mintzo diran liburu bikainen faltarik.

Eta pilotariak? Pozik lotuko nintzake haien oroitzapenez zenbait lerro egiteari, baldin ez banu haien gainean lantxo berezi bat erdi egiña, beste nonbait agertzekoa.

Berriz diot, zein aukeratu? «Aukera maukera, azkenean okerra» esaten da... ba daiteke, baina nik ez dut kasu hontan okerrik aukeratu dudalako kezkarik, **Amasatarrak** ditut begiz joak eta (izanikan ere gudulariren bat edo beste haien artean!).

Merezimendu aundiko gizonak izan zirelako, egoki iduritu zait haien izenak eta egiñak «Oarso»-ko orrialdetara ekartzea, hiriko gazteek—bai eta zaharrek ere—ezagun dituzaten, gaingiroki bederik.

Amasatarren deitura hau bein baino geiagotan ageri da hiriko paper zaharretan. Joanes Amasa ontzigille famatuak, bere aita ta aitona ere baino lehenagoko iru aipatzen ditu: Piarres, XV mende asierakoa; haren seme Juan Ruiz, eta honen seme Piarres, hirian eskribau izana. Bada beste bat oraino, Martin zeritzana, Pasaiaiko kai-obretan 1553 urte inguruan parte artu zuena. Bainan sona aundikoenak, honako lau hauetxek izan ditugu:

Juanes de Amasa. Ontzi kapitana. 1540 urtean, 100 soldadu zeramazien bi ontzitan Malagatik Oran-era eta gainera 11.000 dukat, Enperadorearen gerra-jendea pagatzeko zirenak. Joanes bere ontzian atzera xamar zoalarik, hara non agertzen diren turkoak lau fustetan (aldi hartako ontzimota bat zen «fusta» hori) eta Amasaren aurretik zozan bergantina oldartu ta errendi erazten duten. Hau ikusirik gure kapitana, darrast egin eta etsaien barkuei buruz abiatzen da, haiekin borroka asi eta fusta bat atzematen du, beste bat urperatzen eta bergantina berriz ere koberratzen du. Bide batez, itotzeko zorian zeuden mahomatar andana bat salbatzen ditu, uretatik atereaz. (Hau egin txalogarria izan arren, ez dugu ahaztu behar, denbora haietan, holako salbamenduetan bazela karitatezko asmo utsez gainerako beste zerbait... itsasotik jasotako gizagaixo haiek, erregeren galeretarako aproposak zitezkeen eta!). Hau guztia Oran-etik bi legoara gertatu zen, Alonso de Cordoba kapitana Jeneralaren begipean. Ederki sariztatu zuten honek errenteriar kapitana bulartsua.

Juan de Amasa. Juanesen seme. Hau ere, 40 urte aundietan izan zen erregeren serbitzari leiala, Italian lehenik, Flandes-en gero. Hemen «Artilleriako Kontatzaile» egin zuten Alba-ko dukeak. 1577an, pakezkoak egiñik, Errenterira itzuli ta ontzigintzari eman zan pizkor eta trebe. Bi galeoi egin zituen beingoan; bat, itsas-gudu batean galdua; besteak Santanderetik Cadiz-erako bidea egin zuten, janariz eta zamatuta. 1581 urtean Sanlúcar de Barramedan zegoela, Magallanes-en Itsas-estua ikuskatzeraz zozan ontzitalde batean joateko eskatu zituen Amasari. «San Juan Bautista» bere ontzia zeramala. Baietz erantzun zuten berak. Mentu-

razko txango hura Amasari esker egin ahal izan omen zen, alabaina inork ere ez baitzen urrutiko paraje haietara atrebitzen... Amasak euskaldun kapitana eta ontzi-jabe mordo bat bildu eta haruntza abiatzeko leia piztu omen zuten haiegan. Amabi ontzitan irten ziren azkenik. Amabietarik, bederatzitan ziren euskal-herriko. Amasarena «Almirante ontzi» aukeratu zuten Flores Valdés jeneral agintariak.

Inguru haietako zoko-moko zakarretan barrena bi urte luzez ibillita, 1583 urtean ontzidi eder haren ondakinak bihurtu ziren abia-lekura, Sanlúcarera alegia. Iru ontzi soil-soilik, euskaldunak irurak, Amasarena barne.

J. I. Gamonek—bera baita gure albiste-iturria—ez du tutik esaten txango dirdaitu haren azken gaiztoaz. Porrot egin zuten negargarriro, bere elburuak iritxi gabe, jende asko il gizon eta emakume, eskualde haietan kolonia bat osatzeko asmotan haratuak zirelarik—eta barkurik geienak ondoratuz. Kondairalariak aho batez seinalatzen dute errudun bakarra. Flores Valdes almirantea. Gizon zanez, arroputz liskartsu ta bekaiztia omen zen; Agintari bezala berriz, erabateko gauzeza.

Juan de Amasa. Joanesen seme, ta Matxin Errenterikoaren birloba, amaren aldetik. Bere denborako ontzigillerik trebeen eta famatuena. Argi aundiko gizona, —argi aundikorik Errenterian inoiz izan bada. Sorlekuari ohore ta ospe ematen dioten hoietakoa.

Ume zelarik, ontzi asko egiten ikusi zuten Errenteriako ontzitegietan. Entzun dezaiozun berari: «Nere aurretikoen pausoei jarraikiz... haien paper eta argibideak ikertuz eta ikasiz... eta Errenterian ikusiarekin... nun eta bein batean Ojeda Kapitana 29 ontzi egin bait-zituen, eta auzokoek beste asko ere bai...». Hau da esatea, ontzigintza teoria ez-ezik, praktika ere menderatzen zuela sustraetatik.

29 itsasontzi egin Errenteriako ontzitegietan, eta denak batean egin! Gezurra dirudi, gaurko jende zenbaitek behar bada gezurtzat joko duen egia halere, Errenteriar itzarorako zuten joera ta griña biziaren lekuko egiazkoa.

1605n ekin zion ontzien egiteari, 600 toneladako bi eraikiaz. Ez dugu hemen haren egindako ontzi guzien berri emango, gogaikarri izan zitekean eta. Aipa dezagun bederen haren ekintzako zertzelada jakingarrietarik bat edo beste.

1613an izen ospetsuaren jabe zelarik, deitu zuten Madri-dera aholkulari, kontseilari gisa, bere argiak eman zituzan, «Itsas Agindu» berri batzuk tajutu nai zituzten eta. Espainiako lau bazterretatik jakitunik famatuena bildu ziren. Diego Brochero jauna buru zutela. Baina ez zen handik gauza garbirik atera. Lehengo entsegu honen ondotik beste bat egin zen 1618an, asmo berarekin, Amasa jakintsua ere hantxe ikusten dugu, lanean jo ta ke. Bigarren hau lehengoa bezala amaitu zen, eta itxasoko buruasteak eta korapil- loak lehen bezain konpongaitz eta aska-ezin gelditu ziren. 1618an Bizkaiko Ontzidirako galeoi bat agintzen diote, «Nuestra Señora de la Talaia» izenekoa, legezko agindu edo «Ordenanza» zirelakoak alde batera utzita bere gogora egiteko baimena ematen diotela.

1624ean edo, Pasaian, Portueta fabriketan Intendente Nagusi zen On Alonso de Idiakoz lau galera ari zen egiten. Haietako batean akatz batzuk agertu eta, lanak gel-arazi zituzten, eta Amasa burutsua etorri crazy, gauzak beren zerean ezarri zitzen.

1641 urtea. Berriz ere Madriden ikusten dugu. Itsas-Aginduen kontu nahasia zirt edo zart askatu beharrez. Lehen bezalaxe, karaka asko ta arrautza gutxi. Irudun batzorde bat izendatzen dute: Amasa ta beste bi ontzigille famatuk osatua. Bi hoiek, neurri ta bide berri batzuk proposatzen dituzte, itsas-ontzien gaitzak sendatzeko onak zirela ta. Amasak ordea, berrikeria hoiei gogor egin zien, zera esanez, badaezpadakoak zirela, ongari baino kaltegarriago ta ezin onartzekoak. Eta begira zer proposatzen duen: berak eta bi lagun haiek galeoi bana egingo dutela,

nork bere gogora egin ere: ta iruretarik egokiena gertatu, ta huraxe aukeratua izango dela erduzat, ondoko beste ontzi guziak haren antzera egiñak izan ditezen... Amasaren lankideek ez zituzten haren asmoak onartu, bere izen ona arriskuan ez jartzeko behar bada; edo, Amasaren iritzian, beren jakiñeza iñoren aurrean ez agertzeagatik.

Zenbait idazkitan agirian jartzen dio erregeri, zein beharrezko, zein premiazko zaion erreinuari ontzigin on-on bat edukitzea... «holakoetarik hain gutxi dela eta...».

Bein batean, Gipuzkoako ontzitegiatiko Agintaritzak eskatzen du beretzat, Idiakez jauna ila zelarik. Eskabide bera egiten dio Bizkaiko Jaurlaritzari ere, bertako Agintari Nagusiaren lekua noizpait utsik gelditzeakotan. Baietza eman zioten.

1658an il zen Amasa. Ez dakigu noiztsu zen jaioa. 1580 koa zela uste izatekoa da, bere aita Erreteriar bizitzera etorri zanez geroxeagokoa edo.

Errepika dezagun eten gabe, edozein erriri ospe ta diridaia ematen diotenetakoa izan zela Juan de Amasa erreteriar bikaina.

Martin de Amasa. Aitaren ezpaleko jatorra, haren jakinduria ta izen ona beregan bildu zituen. Eta harek baino arago ere egin zezakean nunbait, nai izan balu; baina aita il eta urte gutxiren buruan elizgizon egin zen. Bestalde, ibaia ta portua gero ta zikinago zegoen ordurako, gero ta lokatzat beteago eta, ondorioz, hiriko itsasgintza ere beherapen negargarri bati buruz abiatua zen.

Don Martinek iñork baino sakonago zekien itsasgintza kontuetan jakin behar zen guztia. Haren ikasnaik ez zuen aseterik, beti ere ari zen ikasten. Barkugiñ trebeenak ere—Gamonek esaten digu hau—haren argitasunez baliatu oi ziren beren lanetarako.

Herriko Alkate ere izan zen, eta 166letik aitzina, Parrokiko benefiziadu. Elizgizon izan arren, «Itsaso jakintzan guztiz aditua zelako» maiz askoan izan zen Madridera deitua 1667-1676 bitartean, arazo horretarako zeregiñetan parte izateko. 1683 an il zen.

Karitatezko obrak egiteko ondasunak utzi zituen; hoiere artean bat oso txalogarria: urtean bein, hiriko neskatxa umezurtzen bati 50 dukat emateko agindua. Bai eta Parrokiako koroari otoitz-liburu eder baliore bat utzi ere, XVI. mendean Amberes'en argitaratua.

Amasatarren enbor mardularen azken aldazka izan zen On Martin.

Hiriko karrika bati «Amasa» izena ezarri diote. Zuzen, oso zuzen ezarria. Bainan ohoratu ondoren, on liteke haien berri zenbait ematea denek jakin dezaten nortsu ziren. Xede horretarako, hona hemen nere aletxoa.